<p>1. EAEko LANeko SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO ERAKUNDEA.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. OSALANi eskualdatu beharreko aginpideak. - Eskualdatzea. <p>2. LAN-ANTOLAMENDUA ETA LAN-HARREMANAK.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Lan Administrazioako Agintaritzaren zereginak gauzatzea. - Honako gai hauek tramitatzea eta erabakitzea: enplegu-erregulazioko espedienteak, ezinbesteko zerbitzuak, grebak, banan-banako adiskidetzeak, eta lan-arloko zigorrak. - Lan-gatazketan bitartekotza egitea: bilerak gizarte-eragileekin, enpresekin, eta langileekin. - Txostenak eta irizpenak egitea. - Errekurtsoak ebaztea eta ebazpen-proposamenak bideratzea. • 2. Honako erregistro hauen hasierako inskripzioa eta aldaketak egitea: <ul style="list-style-type: none"> - Elkartek. - Hitzarmen kolektiboak. - Aldi baterako Laneko Enpresak. - Euskadiko Lan Autonomoko Elkarteen Erregistro Berezia. - Eraikuntzaren Sektoreko Enpresa Akreditatuen Erregistroa. <p>3. LAN-EZBEHARRAK.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. OSALANen Kontseilu Nagusian parte hartzea. - Txostenak. - Bilerak. 	<p style="text-align: center;">1</p> <p style="text-align: center;">38.000</p> <p style="text-align: center;">65</p> <p style="text-align: center;">80</p> <p style="text-align: center;">500</p> <p style="text-align: center;">100</p> <p style="text-align: center;">250</p> <p style="text-align: center;">20</p> <p style="text-align: center;">18</p> <p style="text-align: center;">6</p>	<p>1. INSTITUTO VASCO DE SEGURIDAD Y SALUD LABORAL.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Transferencia al Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laboral - OSALAN para el ejercicio de sus funciones. - Transferencia. <p>2. ORDENACIÓN LABORAL Y RELACIONES LABORALES.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Ejercer las funciones de Autoridad Laboral. - Tramitar y resolver los expedientes de regulación de empleo; servicios esenciales; huelgas; conciliaciones individuales y sanciones en el orden laboral. - Intermediación en conflictos laborales: reuniones agentes sociales, empresas, trabajadores y trabajadoras. - Emisión de informes y dictámenes. - Resolución de recursos y tramitación de propuestas de resolución. • 2. Inscripción inicial y modificaciones en los Registros de: <ul style="list-style-type: none"> - Asociaciones. - Convenios Colectivos. - Empresas de Trabajo Temporal. - Registro Especial de Asociaciones de Trabajo Autónomo de Euskadi. - Registro de Empresas Acreditadas en el Sector de la Construcción. <p>3. SINIESTRALIDAD LABORAL.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Participar en el Consejo General de OSALAN-Servicio Vasco de Seguridad y Salud Laborales. - Informes. - Reuniones.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
<ul style="list-style-type: none"> • 2. Ikuskapenak egitea eta zigorrak ezartzea. <ul style="list-style-type: none"> - Ikuskapenak. - Zigor-espeditentak. - Bitartekotza: gizarte-eragileekin, enpresekin, federazioekin, eta abarrekin egin beharreko bilerak. • 3. Akreditazioak egitea, entitateek prebentzio-zerbitzu moduan jardun dezaten, eta profesionalak laneko segurtasun eta osasunerako teknikari-lanak egin ditzaten. <ul style="list-style-type: none"> - Prebentzio- eta kontu-ikuskaritzako zerbitzuak baimentzea. - Ikastaroak, mintegiak, jardunaldiak, eta abar, baimentzea. - Prebentzio-zerbitzu gisa akreditatutako erakundeen eta auditoriak egiteko baimendutako pertsona edo erakundeen Erregistroko lehengo inskripzioa eta aldaketak. • 4. Laneko istripuen eta osasunaren prebentzioa bultzatzea. <ul style="list-style-type: none"> - Jardunaldietan, ikastaroetan, mintegietan, eta abarretan parte hartzea. - Laneko ezbeharren aurkako kanpainan laguntzea. <ul style="list-style-type: none"> - Bilerak. - Jardunaldiak. 	<p style="text-align: center;">1.200</p> <p style="text-align: center;">500</p> <p style="text-align: center;">20</p> <p style="text-align: center;">10</p> <p style="text-align: center;">30</p> <p style="text-align: center;">20</p> <p style="text-align: center;">6</p> <p style="text-align: center;">2</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 2. Inspección y actuaciones sancionadoras. <ul style="list-style-type: none"> - Inspecciones. - Expedientes sancionadores. - Intermediación: reuniones agentes sociales, empresas, federaciones,... • 3. Acreditación de Entidades como Servicios de Prevención y de Profesionales como Técnicos de Seguridad y Salud Laborales. <ul style="list-style-type: none"> - Autorización de servicios de Prevención y de Auditoría. - Autorización de cursos, seminarios, jornadas, etc. - Inscripción inicial y modificaciones en el Registro de entidades acreditadas como servicios de prevención y de personas o entidades autorizadas de auditoría. • 4. Impulso de la prevención de los Accidentes y salud Laborales. <ul style="list-style-type: none"> - Participación jornadas, cursos, seminarios,... - Colaboración en la campaña contra la siniestralidad. <ul style="list-style-type: none"> - Reuniones. - Jornadas.
<p>4. LAN-HARREMANEN ESPARRUA.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Hiru lurralde historikoetako Lan eta Gizarte Segurantzak ikuskaritzak koordinatzea lan-arloan. <ul style="list-style-type: none"> - Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritzaren 2009. urterako helburuak ezartzea. - Helburuen betearazpenaren jarraipena eta kontrola. Bilerak. - baterakotasunaren inguruko ekintzetarako aparteko kanpainak egitea... • 2. Egungo gizarte eta lan arloko organoak egokitzea. <ul style="list-style-type: none"> - Bilerak gizarte-eragileekin. • 3. Lan-baldintzak hobetzeko neurriak bultzatzea. <ul style="list-style-type: none"> - Laneko Jazarpen Moralaren Euskal Behatokiaren finantzazioa • 4. Gizarte eta lan arloan langileen eta euren ordezkarien partaidetza sustatzea, dagozkien helburuen arabera. <ul style="list-style-type: none"> - Sindikatuentzako diru-laguntzen espeditentak. 	<p style="text-align: center;">1</p> <p style="text-align: center;">6</p> <p style="text-align: center;">4</p> <p style="text-align: center;">20</p> <p style="text-align: center;">30</p>	<p>4. ÁMBITO DE RELACIONES LABORALES.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Coordinar las Inspecciones de Trabajo y Seguridad Social de los tres Territorios Históricos en materia laboral. <ul style="list-style-type: none"> - Establecer los objetivos para 2009 de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social. - Seguimiento y Control de la ejecución de los Objetivos. Reuniones. - Realizar campañas extraordinarias de actuación en materias de siniestralidad, temporalidad... • 2. Adecuación de los actuales órganos socio-laborales. <ul style="list-style-type: none"> - Reuniones con los agentes sociales. • 3. Fomento mejora condiciones de trabajo. <ul style="list-style-type: none"> - Financiación del Observatorio Vasco sobre Acoso Moral en el Trabajo. • 4. Fomento de la participación de los trabajadores y/o sus representantes en el ámbito sociolaboral según los fines que les son propios. <ul style="list-style-type: none"> - Expedientes de subvención a Centrales Sindicales.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
<ul style="list-style-type: none"> • 5. Sindikatu Hauteskundearen Bulego Publikoa. - Txostenak. - Sindikatu-hauteskundeetako Batzordearekin bilerak egitea. - Sindikatu-hauteskundearen espedienteak bideratzea. - Aurre-abisuen, akten eta langileen ordezkarien eta prebentzio-delegatuen erregistroa (oharpenak). - Sindikatu-hauteskundearen Batzordearen dirulaguntzen espedienteak bideratzea. • 6. Lan-harremani buruzko biltzarretan, mintegietan eta jardunaldietan parte hartzea. - Hitzaldiak eta biltzarrak. • 7. Teknikarientzako prestakuntza eta espezializazio-ikastaroak. - Ikastaroetara joatea. 	<p style="text-align: center;">4</p> <p style="text-align: center;">35</p> <p style="text-align: center;">8.000</p> <p style="text-align: center;">22.000</p> <p style="text-align: center;">4</p> <p style="text-align: center;">10</p> <p style="text-align: center;">40</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 5. Oficina Pública de Elecciones Sindicales. - Informes. - Reuniones con el Comité de Elecciones Sindicales. - Tramitar expedientes de elecciones sindicales. - Registro de preavisos, actas y delegados de personal y de prevención (anotaciones). - Tramitar expedientes de subvención del Comité de Elecciones Sindicales. • 6. Participación en Conferencias, Seminarios y Jornadas sobre relaciones laborales. - Conferencias y charlas. • 7. Cursos de formación y especialización de Técnicos/as. - Asistencia a cursos.
5. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GIZARTE SEGURANTZAREN EGOERAREN SEGIMENDUA.		5. SEGUIMIENTO DE LA SITUACIÓN DE LA SEGURIDAD SOCIAL EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI.
<ul style="list-style-type: none"> • 1. Bilerak Madrilen eta probintzia-zuzendaritzetan. - Bilerak. • 2. Egoera eta aurrera begirako txostenak egitea. - Txostenak. • 3. Kotizazio gabeko pentsioei jarraipena egitea. - Autonomia Erkidegoko egoerari buruzko txostenak egitea. - Urteko egoera-estatistikak. - Bilakaera-datuak. 	<p style="text-align: center;">5</p> <p style="text-align: center;">2</p> <p style="text-align: center;">4</p> <p style="text-align: center;">1</p> <p style="text-align: center;">12</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 1. Reuniones en Madrid y Direcciones Provinciales. - Reuniones. • 2. Realizar estudios de situación y prospectivos. - Informes. • 3. Seguimiento de las Pensiones no contributivas. - Elaboración de informes de situación en la Comunidad. - Estadísticas anuales de situación. - Datos de evolución.
6. GIZARTE-AURREIKUSPEN OSAGARRIA SUSTATU ETA FINKATZEA		6. POTENCIAR Y CONSOLIDAR LA PREVISIÓN SOCIAL COMPLEMENTARIA.
<ul style="list-style-type: none"> • 1. Gizarte Aurreikuspen Osagarria arautzeko Legea onartzea. - Gizarte-eragileekin ados jartzeko bilerak. - Eusko Legebiltzarrari erreformaren proposamena egiten eta aztertzen laguntzea: txostenak eta talde parlamentarioekin egin beharreko bilerak. • 2. Gizarte-aurreikuspeneko plana gauzatzea. 	<p style="text-align: center;">20</p> <p style="text-align: center;">25</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 1. Aprobación de la Ley reguladora de la Previsión Social Complementaria. - Reuniones de puesta en conformidad con agentes sociales. - Colaboración con el Parlamento Vasco para su propuesta y discusión: informes y reuniones con grupos parlamentarios. • 2. Ejecución del plan de previsión social.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
<ul style="list-style-type: none"> - Enplegu-sistemak ezartzeko sustapen-neurriak taxutzea, diru-laguntzak emanez. 	75	<ul style="list-style-type: none"> - Medidas de fomento y promoción para la implantación de sistemas de empleo mediante la concesión de ayudas económicas.
<ul style="list-style-type: none"> - Administrazio-neurriak jartzea, sistema errazak diseinatuz, eredu estandarrak eginez eta prozeduretarako protokoloak ezarriz. 	1	<ul style="list-style-type: none"> - Medidas administrativas mediante el diseño de sistemas sencillos, elaboración de modelos estándar y protocolarización de procedimientos.
<ul style="list-style-type: none"> • 3. Gizarte Aurreikuspenaren Euskal Behatokia kudeatzea eta horri eustea, aurreikuspena etengabe kontrolatzeko eta haren segimendua egiteko, lanabes teknikoa den aldetik. 		<ul style="list-style-type: none"> • 3. Gestionar y mantener el Observatorio Vasco de Previsión Social como instrumento técnico permanente de control y seguimiento de la previsión.
<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-aurreikuspeneko sistemei buruzko ikerketak eta segimendu-plana, baita gai horri buruzko Europa mailako politikena ere. 	4	<ul style="list-style-type: none"> - Estudios y plan de seguimiento de los sistemas de previsión social y de las políticas europeas en esta materia.
<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Aurreikuspenaren Euskal Aldizkaria egitea. 	3	<ul style="list-style-type: none"> - Elaboración Boletín Vasco de Previsión Social.
<ul style="list-style-type: none"> - Agerkari elektronikoa edo newsletter-a egitea. 	4	<ul style="list-style-type: none"> - Elaboración boletín electrónico o newsletter.
<ul style="list-style-type: none"> • 4. Gizarte Aurreikuspenaren Euskal Kontseilua kudeatzea. 		<ul style="list-style-type: none"> • 4. Gestionar el Consejo Vasco de Previsión Social.
<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-aurreikuspena garatzen eta orokortzen duten lege, zerga, ekonomia, administrazio eta aurrekontuen arloko neurri-proposamenak. 	6	<ul style="list-style-type: none"> - Propuestas de medidas legales, fiscales, económicas, administrativas y presupuestarias que desarrollen y generalicen la previsión social.
<ul style="list-style-type: none"> • 5. Pentsio-gaietan profesionalizazioa, prestakuntza eta hezkuntza areagotzea. 		<ul style="list-style-type: none"> • 5. Incrementar la profesionalización, formación y educación en materia de pensiones.
<ul style="list-style-type: none"> - Pentsioei dagokienez funtsezko gaiei buruzko jardunaldi teknikoak. 	2	<ul style="list-style-type: none"> - Jornadas técnicas sobre aspectos esenciales de pensiones.
<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-aurreikuspenari buruzko gutxieneko jakintza izateko prestakuntza-ikastaroak (presentzialak eta on-line erakoak). 	7	<ul style="list-style-type: none"> - Cursos formativos presenciales y on-line para adquisición de conocimientos mínimos en materia de Previsión Social.
<ul style="list-style-type: none"> • 6. Komunikazio-estrategiak diseinatzea. 		<ul style="list-style-type: none"> • 6. Diseñar estrategias de comunicación.
<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-aurreikuspenaren komunikazio-kanpaina. 	1	<ul style="list-style-type: none"> - Campaña de comunicación de la previsión social.
<ul style="list-style-type: none"> • 7. BASEak gainbegiratu eta kontrolatzea. 		<ul style="list-style-type: none"> • 7. Supervisión y control de las EPSV.
<ul style="list-style-type: none"> - Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundearen (BASE) erregistroa: inskripzioa, estatutuen aldaketa,... 	200	<ul style="list-style-type: none"> - Registro de EPSV's: Inscripción, modificación estatutaria,...
<ul style="list-style-type: none"> - Egoerari buruzko txostenak. 	10	<ul style="list-style-type: none"> - Informes de situación.
<ul style="list-style-type: none"> - Egoera ekonomiko eta finantzarioaren urteko estatistika-txostena. 	1	<ul style="list-style-type: none"> - Memoria estadística anual de estados económicos-financieros.
<ul style="list-style-type: none"> - Borondatezko Gizarte Aurreikuspena edo Gizarte Aurreikuspen Osagarria sustatzeko jardunaldietan, mintegietan eta hitzaldietan parte hartzea. 	5	<ul style="list-style-type: none"> - Participación en Jornadas, Seminarios y Charlas de fomento de la Previsión Social Voluntaria y/o Complementaria.
<ul style="list-style-type: none"> - Zergak Koordinatzeko Organoarekin eta foraldundiekin bilerak egitea, Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundearen (BASE) eta horien bazkideen jardunak jasotzen duen zerga-tratamendua egokitzeko. 	6	<ul style="list-style-type: none"> - Mantener reuniones con el Órgano de Coordinación Tributaria y las Diputaciones Forales para el adecuado tratamiento fiscal de la actividad de las EPSV's y de sus partícipes asociados.
<ul style="list-style-type: none"> - Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-aurreikuspeneko sistemari buruzko aholkularitza, tutoretza eta kontsultak erantzutea. 	200	<ul style="list-style-type: none"> - Asesoramiento, tutela y atención de consultas relativas al sistema vasco de protección social.

PROGRAMA	PROGRAMA
3121 GIZARTERATZEA	3121 INSERCIÓN SOCIAL
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>04 JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA</u>	<u>04 JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL</u>
GIZARTERATZE ZUZENDARIA, PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK EBALUATZEKO ZUZENDARIA	DIRECTOR INSERCIÓN SOCIAL, DIRECTOR DE EVALUACIÓN DE PROGRAMAS Y SERVICIOS.

MEMORIA

2009ko ekitaldian Gizarteratze eta Familia Sailburuordetzak betearazi nahi duen "Gizarteratze" programak gizarteratzearen arloko honako jarduerak barne hartzen ditu: gizartean baztertuta dauden edo hala egoteko arriskuan daudenei zuzendutako jarduerak eta abian jarritako programen betearazpenaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko jarduerak, herritarrei eskainitako zerbitzuak hobetzeko tresna gisa.

GIZARTERATZEA.

Erdietsitako hazkunde ekonomikoaren emaitzek gure gizarteko kide guztientzako aurrerapen eta bizi-kalitatearen alde eragitea da gizarte modernoan helburu nagusietakoa. Herritar guztien gizarte-ongizatearen mailak hobetzeko jardueren artean, gizarteratze-programa hauetan jasotako jarduerak daude. Hain zuzen ere gizarteko talde behartsuenak babestea da jarduera horien helburua.

Gizarte-bazterketaren aurkako borroka da mendebaldeko gizarteek gaur egun duten erronka handienetakoa. Baina bazterketaren fenomenoaren egitura eta dimentsio anitza direla-eta, bereziki konplexua da erronka hori.

Horregatik, politika orokorrak eta arlokakoak ezartzeaz gain, beharrezkoa da bazterketaren aurkako neurri espezifikoak ere hartzea. Neurri horiek oso errealitate ezberdinei irtenbideak eskaintzen saiatu behar dute, edozein izanik ere haien jatorria: langabezia, pensio txikiak, familia-hausturak, gutxiengo etnikoetakoa izatea, minusbalotasuna, droga-mendetasuna, edo azkenean halako bazterketa-arazoak sortzen dituen beste edozein arrazoi (sarritan, gainera, emakumea izateagatik larriagoak izaten dira arazoak).

El programa de "Inserción Social" que la Viceconsejería de Inserción Social y de Familia prevé ejecutar en el ejercicio 2009 incluye tanto las actuaciones que, en el ámbito de la inserción social, van dirigidas a personas en situación o riesgo de exclusión social, como las dirigidas a realizar un seguimiento y evaluación de la ejecución de los distintos programas puestos en marcha, como medio para mejorar la calidad de los servicios ofrecidos a los ciudadanos.

INSERCIÓN SOCIAL.

Uno de los principales objetivos de las sociedades modernas estriba en conseguir que el producto del crecimiento económico alcanzado, redunde en progreso y calidad de vida para todos los miembros de nuestra sociedad. Entre las acciones encaminadas a mejorar los niveles de bienestar social entre todos los ciudadanos, se encuentran las recogidas en estos programas de Inserción Social, cuyo objeto de atención es la protección de los sectores sociales más desfavorecidos.

La lucha contra la exclusión social se ha convertido en uno de los principales retos con que se enfrentan en la actualidad las sociedades occidentales. Debido a la naturaleza estructural y al carácter multidimensional del fenómeno de la exclusión, este reto resulta particularmente complejo.

Por ello, junto a la aplicación de políticas generales y sectoriales es necesario que se actúe con medidas específicas dirigidas a luchar contra la exclusión. Éstas deben tratar de ofrecer soluciones a realidades muy distintas, con independencia de que el origen de las mismas sea el desempleo, las bajas pensiones, las situaciones de ruptura familiar, la pertenencia a minorías étnicas, la discapacidad, la drogodependencia o cualquier otra que acabe generando esta problemática, a menudo agravada, además, por el hecho de ser mujer.

Helburua eskubide bikoitz bat gauzatzea da: batetik, herritar guztiei bermatzea oinarrizko beharrei aurre egiteko gutxieneko diru-sarrerak izango dituztela eta, bestetik, gizarteratzeko eta laneratzeko eskubidea bermatzea, gizarteratzeko politika aktibo berriak sustatuz. Horretarako, baztertuta edo hala egoteko arriskuan dauden pertsonentzako orain arte gauzatu diren enplegu-politika aktiboak indartu eta bultzatuko dira, eta Gizarteratzeko II. Planean jasotzen diren bestelako ekimen berriak gauzatuko dira.

Gizarteratzeko Erakunde arteko II. Plana (2007-2009) erreferentzia nagusia da Administrazioak arlo horretan aplikatzen duen gizarte-politikarentzat. II. Euskal Plan horrek baztertuta edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea lortzeko eskumena duten administrazioen jarduera eta eskuartzea bideratu behar duten ildo eta gidalerroak jasotzen ditu era koordinatu eta orokorrean.

Oinarrizko Errenta (OE) —pentsioak jasotzen dituztenentzako osagarriarekin batera—, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) lehen pauso ezinbestekoa dira, pertsona eta gizatalde guztiak gure gizartean txertatzeko. Laguntza horiekin, gutxieneko segurtasun ekonomikoa eskaini nahi da, familiek beren oinarrizko beharrei aurre egiteaz gain, gizarteratzeko eta laneratzeko aurreneko urrats gisa ere balio izan dezan.

Gizarte Eskubideen 10/2000 Legeak Oinarrizko Errenta ezartzen du, horren zenbatekoa zehazteko Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren ehuneko jakin bat aintzat hartuz. Enplegurako pizgarrien programaren bidez, ordea, maila txikiko lan-errentak dituzten pertsonentzat Oinarrizko Errenta baino diru-sarrera handiagoa bermatzen ahalegintzen gara.

Ekainaren 25eko 8/2008 Legeak osagarri bat sartu du Oinarrizko Errentan, diru-beharrean egonik zahartzaroko, baliaezintasuneko edo alarguntzako pensioa jasotzen duen pertsonaren bat daukaten bizikidetzak-unitateek diru-sarrera handiagoak izatea bermatzeko. Prestazio hori LGSaren % 100aren parekoa da.

2009ko ekitaldirako, Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legea aldatzea aurreikusi da, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria sortuz. Prestazio hori eskubidea izango da, eta Oinarrizko Errentaren titularrei zuzenduta egongo da, betiere aldiari behin alokairu-gastuei edo ohiko etxebizitza erosteko hartutako kredituen interesetatik edo amortizaziotik eratorritako gastuei aurre egiteko beharra egiaztatzen baldin badute. Horrek guztiak aurrerapauso bat ekarriko du bazterkeria- eta pobrezia-egoeren tratamendu integralean.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzei (GLL) dagokionez, gaur arteko gastu-kontzeptu guztiak jarraituko dute, nahiz eta ez diren bateragarriak izango Etxebizitzarako Prestazio Osagarriarekin, eta ez aldizkakoak eta aldi baterakoak izaten jarraituko dute.

Gizarteratze-hitzarmenen aplikazioa da bai Gizarte-bazterkeriaren aurkako Legeak bai Gizarte Eskubideen Gutunak daukaten tresna nagusia, laguntza behar handiena duten pertsonak gizarteratzeko eta horien bazterkeria prebenitzeko. Gizarteratze-hitzarmenetan biltzen dira gizarteratze pertsonala, soziala eta laborala lortzeko behar diren ekintza sozial espezifikoak.

Se trata de hacer efectivo un doble derecho, por un lado, a la garantía de la percepción de unos ingresos mínimos que permitan afrontar a todos los ciudadanos sus necesidades básicas y, por otro, del derecho a la inserción social y laboral que se pretende enfatizar a través de nuevas medidas de políticas activas de inserción. Para ello, se reforzarán e impulsarán las políticas activas de empleo específicamente destinadas a las personas en situación o riesgo de exclusión social que se han venido realizando hasta la fecha, junto a otras iniciativas novedosas contempladas en el II Plan de Inclusión Social.

El II Plan Interinstitucional de Inclusión Social 2007-2009 es la principal referencia para la aplicación de la política social que desde la Administración se lleva a cabo en este campo. Este II Plan Vasco recoge de forma coordinada y global las líneas y directrices de intervención y actuación que orientan la actividad de las Administraciones competentes para la consecución de la inserción de las personas en situación o riesgo de exclusión.

La Renta Básica (RB), con el complemento para beneficiarios de pensiones, junto a la Prestación Complementaria de Vivienda y las Ayudas de Emergencia Social (AES) constituyen un primer paso imprescindible para lograr la integración de todas las personas y grupos en nuestra sociedad. Se pretende con dichas ayudas conseguir un mínimo de seguridad económica con el que las familias puedan afrontar sus necesidades más básicas a la vez que sirva de primer peldaño para lograr su integración social y laboral.

Si en la Ley 10/2000, de Carta de los Derechos Sociales, se establece una Renta Básica cuya cuantía se fija en un determinado porcentaje del Salario Mínimo Interprofesional, a través del programa de Estímulos al Empleo tratamos de garantizar a las personas con rentas procedentes del trabajo pero de bajo nivel, unos ingresos superiores a la Renta Básica.

La Ley 8/2008, de 25 de junio, introduce un complemento en la Renta Básica dirigido a garantizar un mayor nivel de ingresos para las unidades de convivencia en las que hay alguna persona beneficiaria de pensiones de vejez, invalidez o viudedad que se encuentren en situación de necesidad equiparando la cuantía de la prestación al 100% del SMI.

Para el ejercicio 2009 se contempla también una modificación de la Ley contra la Exclusión Social, creándose una Prestación Complementaria de Vivienda, configurada como un derecho y destinada a las personas titulares de la Renta Básica que presenten y acrediten la necesidad de cubrir, con carácter periódico, gastos de alquiler o derivados de intereses y amortización de créditos contraídos para la adquisición de la vivienda o alojamiento habitual. Todo ello supondrá un avance en el tratamiento integral de las situaciones de exclusión y pobreza.

En relación con las Ayudas de Emergencia Social AES, se mantendrán para atender los mismos conceptos de gasto que hasta la fecha incompatibilizándolas con la Prestación Complementaria de Vivienda y respetando su carácter no periódico y temporal.

La aplicación de los Convenios de Inserción constituye el principal instrumento que, tanto la Ley contra la exclusión social como la Carta de los Derechos Sociales, destinan a la inserción y a la prevención de la exclusión de las personas más desfavorecidas. En los Convenios de Inserción se recogen las acciones específicas de carácter social necesarias para la inserción personal, social y laboral.

Gizarteratzeko hitzarmenen bitartez (pertsonearen behar orokorrak hartuta gizarteratzeko prozesu edo ibilbide banakakoa ezartzeko dokumentuak diren aldetik), gizarte-jarduera zehatzak ezartzen dira, bazterkeria-arriskua aurrez eragozteko edo pertsona horiek arlo pertsonalean, sozialean eta, ahal bada lanekoan gizarteratzeko. Horretarako, aipatutako gizatalde horiei bereziki zuzenduta dauden enplegu-sustapeneko neurri aktiboak aplikatzen dira.

Prebentzioa da, oro har ulerturik, tresnetan tresna gizarte bazterkeriaren aurka. Gizarteratze eta gizarte-aurreikuspeneko programak dira helburu hori erdiesteko bitartekoak.

Horren ildotik, erakunde publikoentzako zein irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuentzako laguntza-programa bat ezarri da, gizarteratzea helburu duten jarduerak egin ditzaten. Gizarteratze-programei ekimen berritzaileak aplikatuz, gizarte-bazterketa nozitzen duten taldeak gizarteratzea lortu nahi da, eta horretarako oinarritzko tresnak dira gizarteratze-hitzarmenak.

Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzeko asmoa duen Auzolan programa aplikatuz, enplegu-aukera bat eman ahal izango zaie egoera horretan dauden pertsonari. Auzolan programaren asmoa da, hain zuzen ere, pertsona horiei lan-aktibaziorako aukera ematea, gizarte-onurakotzat jotako esparru batean eta prestakuntza-prozesu baten bitartez; prestakuntza horren ardatz izango dira gehienbat lanarekin loturiko ohitura sozio-pertsonalak garatzea, eta, era berean, laneratzeko banakako plana egitea.

Ildo berean, laneratzeko laguntzeko enpresak sor daitezkeen laguntzen ahalegintzen gara, baita horiek iraun dezaten ere, gizartetik baztertuta daudelako laneratzeko zaitasun handienak dituzten pertsona eta taldeei gizarteratzeko bidea eman diezaieten.

Gizarte Eskubideen Gutunaren abenduaren 27ko 10/2000 Legean, zaitasun handienak dituzten gizataldeak laneratzeko laguntzeko ekintza positiboko neurriak hartuz enplegua sustatzea aurreikusten da. Abenduaren 26ko 305/2000 Dekretuak laneratzeko laguntzeko enpresen kalifikazioa arautzen du, horietan sartzeko prozedura ezartzen du eta laneratzeko laguntzeko enpresa horien erregistroa sortzen du.

2002ko abenduaren 11ko Agindua —2007ko maiatzaren 3ko Aginduak aldatutakoa— garatzeko egiten den urteroko deialdiaren bitartez, laneratzeko laguntzeko enpresak sustatzeko neurriak aplikatzea aurreikusten da.

Gizarteratzeko Erakunde arteko II. Planean (2007-2009), Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legeak eta Gizarte Eskubideen Gutunaren Legeak eratzten duten lege-esparrua berraztertzea aurreikusten zen, bi legeen xedearan eta edukiaren arau-berrantolaketaren bitartez. Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko Lege berria Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema eratu da. Sistema horrek bi osagai nagusi izango ditu: diru-prestazioak, eta gizarteratzea eta laneratzeko helburu duten tresnak. Euskal sisteman sartutako diru-prestazioekin, arian-arian prestazioa orokortzea da asmoa eta, horretarako, bizikidetzaren unitatearen definizioa aldatu dugu, kontzeptu hori familia-nukleoaren errealitate hobeto egokitzeke. Honako hauek dira prestazioak:

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, hiru modalitatekin:
- Gizarteratzeko Oinarritzko Errenta.
- Pentsioak osatzeko Errenta.

A través de los Convenios de Inserción, entendidos como documentos orientados a establecer un proceso o itinerario individualizado de inserción que tenga en cuenta las necesidades globales de la persona, se establecen las acciones específicas de carácter social necesarias para prevenir el riesgo de exclusión o para conseguir la inserción personal, social y siempre que ello sea posible, la inserción laboral, aplicando para ello medidas activas de fomento de empleo dirigidas especialmente hacia estos colectivos.

La prevención, en su sentido más amplio, es la herramienta por excelencia en la lucha contra la exclusión. Los programas de prevención e inserción social son los instrumentos mediante los cuales se pone en marcha este objetivo.

En este sentido, se establece un programa de ayudas tanto a entidades públicas como a entidades privadas sin ánimo de lucro para la realización de actividades dirigidas a la inserción social. Mediante la promoción de iniciativas innovadoras aplicadas a los programas de inserción social se pretende lograr la incorporación social de las personas pertenecientes a colectivos socialmente marginados, teniendo como instrumento básico de actuación los convenios de inserción.

Mediante la aplicación del programa Auzolan, dirigido a la inserción laboral de las personas en situación de riesgo de exclusión, se podrá proporcionar una oportunidad de empleo a las personas que se encuentran en dicha situación. El programa Auzolan pretende proporcionarles una oportunidad de activación laboral en el ámbito considerado de utilidad social y mediante un proceso formativo centrado fundamentalmente en el desarrollo de hábitos socio-personales relacionados con la ocupación laboral y en la elaboración de un plan personal de inserción en el empleo.

En el mismo sentido, tratamos de fomentar la creación de empresas de inserción y de apoyar su mantenimiento, al objeto de que puedan proporcionar una vía de integración para las personas y colectivos que tengan mayores dificultades de inserción laboral por encontrarse en situación de exclusión social.

En la Ley 10/2000, de 27 de diciembre, de Carta de Derechos Sociales, se prevé la promoción del empleo mediante la aplicación de medidas de acción positiva destinadas a favorecer la integración laboral de los colectivos más desfavorecidos. El Decreto 305/2000, de 26 de diciembre, regula la calificación de las empresas de inserción, establece el procedimiento de acceso a las mismas y crea el registro de dichas empresas de inserción.

Mediante la convocatoria anual que se realice en desarrollo de la Orden de 11 de diciembre de 2002, modificada por Orden de 3 de mayo de 2007, se prevé la aplicación de medidas de fomento y apoyo a las empresas de inserción.

En el II Plan Interinstitucional de Inclusión Social 2007-2009 se preveía la revisión del marco legal conformado por la Ley contra la Exclusión Social y la Carta de Derechos Sociales mediante la readecuación normativa del objeto y contenido de ambas normas. En la nueva Ley para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social se configura el Sistema Vasco de Garantía de Ingresos e Inserción Social que estará integrado por dos componentes esenciales, las prestaciones económicas y los instrumentos orientados a la inclusión social y laboral. Con las prestaciones económicas integradas en el Sistema Vasco se pretende avanzar hacia una progresiva universalización de la prestación, procediendo a una redefinición de la unidad de convivencia acercando el concepto a la realidad del núcleo familiar. Son:

- La Renta de Garantía de Ingresos, con tres modalidades:
- La Renta Básica para la Inclusión Social.
- La Renta Complementaria de Pensiones.

- Laneko diru-sarrerak osatzeko Errenta.

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren osagarria den subsidio ekonomikoa ezarri da, guraso bakarreko bizikidetzak-unitateentzat.

- Etxebizitzako Prestazio Osagarria, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularrek etxebizitzari dagokionez dituzten premiak estaltzeko.

- Gizarte-larrialdietarako laguntzak, hau da, gizarte-bazterkeria prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko behar diren gastu espezifikoei, ohiko nahiz apartekoei, aurre egiteko laguntzak.

Baina, horrez gain, babeserako eta gizarteratzeko zein laneratzeko prozesuak arautzen dituzten arauak ere egokitu nahi dira, banakako esku-hartze soziala sustatu eta errazteko eta laneratzeko mekanismoak indartzeko.

Horretarako beharrezkoa izango da baztertuta dauden edo horrela egoteko arriskuan dauden pertsonen berariazko profiletarako enplegu-aktibazioko programa berriak sustatzea. Horren ildotik, ezintasunaren arloko elkarteekin eta EAEko Enplegu Zentro Bereziekin lankidetzak-programak abiatuko dira, eta arreta berezia jarriko da lan-merkatu arruntera sartzeko laguntza duten enplegu-programen garapenean, eta familia-kargak dituzten eta gizartean baztertuta dauden edo hala egoteko arriskuan dauden emakumeen laneratzearen aldeko berariazko zerbitzuen sorrera sustatuko da, seme-alaben edo haien kargura dauden mendeko beste pertsonen zaintza ahalbidetzeko.

Halaber, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako berariazko diru-laguntza eman eta ordaintzeko prozedura arautuko da. Laguntza hori Genero-biolentziaren kontrako Babes Osoko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoko 27. artikuluan aurreikusten da.

Sailaren beste lehentasun bat dira profesionalak prestatzeko programak eta bazterkeria sortzen duten kausak aztertzeko programak. Ekimen horien bitartez, egokitu egin nahi dira gaur egungo gizartearen beharrak eta eskakizunei erakundeek ematen dieten erantzuna.

EBALUAZIOA.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak Sailak, otsailaren 12ko 44/2002 Dekretuaren bidez, sailaren egitura organikoa eta egitekoena arautu zuen, eta bere baitan Programak eta Zerbitzuak Ebaluatzeko Zuzendaritza ezarri. Horrela, antzemandako behar bati erantzun zion, alegia, abian jarritako planak eta programen segimendua eta ebaluazioa egiteko beharrari, betiere herritarrei eskainitako zerbitzuen kalitatea etengabe hobetze aldera.

Gizarteratze eta Familia Sailburuordetzak bi jarduerak-plan egin eta kudeatzen ditu: Gizarteratzeko Euskal Plana, gizarte-bazterketaren aurka borrokatzea eta herritar guztiak gizarteratzen laguntzeko behar diren baldintza sozialak sustatzea helburutzat dituena; eta Familiei Laguntzeko Erakunde arteko Plana, familiek haien familia-proiektua aurrera eramateko eta nahi beste seme-alaba izateko dituzten ekonomia, gizarte eta lan-arloko oztopoak ekiditeko asmoak sortua.

- La Renta Complementaria de Ingresos de Trabajo.

- Se establece un subsidio económico complementario de la Renta de Garantía de Ingresos destinado a las unidades de convivencia monoparentales.

- La Prestación Complementaria de Vivienda, que se dirigirá a cubrir las necesidades relacionadas con la vivienda de las personas titulares de la Renta de Garantía de Ingresos.

- Las Ayudas de Emergencia Social, destinadas a aquellas personas cuyos recursos resulten insuficientes para hacer frente a gastos específicos, de carácter ordinario o extraordinario, necesarios para prevenir, evitar o paliar situaciones de exclusión social.

Pero se pretende, asimismo, adecuar la normativa que rige los procesos de protección e inserción socio-laboral, de manera que se favorezca y facilite la intervención social individualizada y se refuercen los mecanismos de inserción laboral.

Para ello, será necesario promover nuevos programas de activación para el empleo destinados a perfiles específicos de personas en situación o riesgo de exclusión. En este sentido, se pondrán en marcha programas de colaboración con las asociaciones del ámbito de la discapacidad y los Centros Especiales de Empleo radicados en la CAPV, con especial atención al desarrollo de programas de empleo con apoyo para la inserción en el mercado laboral ordinario y se promoverá la creación de servicios específicos de apoyo a la inserción laboral de mujeres con cargas familiares y en situación o riesgo de exclusión social que permitan el cuidado de los hijos/as o de otras personas dependientes y que estén a su cargo.

Asimismo, se regulará el procedimiento de concesión y pago de una ayuda económica específica dirigida a las mujeres víctimas de violencia de género. Dicha ayuda está prevista en el artículo 27 de la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género.

El mantenimiento de los programas dedicados a la formación de los profesionales y a la investigación de las causas que conducen a la marginación constituye una prioridad del Departamento dado que buscan adecuar la respuesta que desde las Instituciones se da a las necesidades y demandas planteadas desde la sociedad actual.

EVALUACIÓN.

El Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social en su Decreto 44/2002, de 12 de febrero, de Estructura Orgánica y Funcional se dotó de una Dirección de Evaluación de Programas y Servicios. Se respondía así a una necesidad sentida de realizar un seguimiento y evaluación de la ejecución de los Planes y de los distintos programas puestos en marcha, como medio para mejorar constantemente la calidad de los servicios ofrecidos a los ciudadanos.

La Viceconsejería de Inserción Social y de Familia elabora y gestiona dos planes de actuación: el Plan Vasco de Inclusión Social, que tiene como objetivo central la lucha contra la exclusión social o la promoción de las condiciones sociales que favorezcan la inclusión social de todos los ciudadanos y ciudadanas, y el Plan Interinstitucional de Apoyo a las Familias, cuyo principal objetivo es remover los obstáculos de orden económico y sociolaboral con que se encuentran las parejas para llevar adelante su proyecto familiar y tener el número de hijos o hijas deseado.

Familielaguntzeko Erakunde arteko II. Plana 2006ko azaroan onartu zen, eta 2010. urtearen bukaerara arte luzatu da bere indarraldia. Urteroko ebaluazioak egin ondoren, planean aurreikusitako neurrien betearazpenaren egoerari buruzko ebaluazioa eta laguntza-programen betearazpenaren memoria egingo dira 2009. urtearen bukaeran.

2007. urtearen erdialdera onartu eta 2007-2009 hirurtekorako indarraldia duen Gizarteratze Planari dagokionez, 2009ko ekitaldi honetan urteroko ebaluaketa eta azken ebaluaketa egin behar dira. Bigarren horretan, gainera, 2008ko ebaluazioaren emaitzak ere sartu beharko dira.

Azkenik, 2009. urtearen bukaeran Gizarte-larrialdietarako laguntzen Programaren ebaluazio berria egingo da eta bertan arreta berezia eskainiko zaio GLLen kudeaketarako erabiltzen den Diagnostiko eta Esku Hartze Sozialeko tresnan erabilgarri dagoen aplikazioaren funtzionamenduari eta baita aplikazio horren ezarpen-mailari eta erabiltzaileen gogobetetze-mailari ere.

Sailburuordetza honen uztez, programen ebaluazioak ezin du betearazpenari eta emaitzei buruzko txosten hutsa izan; aitzitik, ebaluazioak etengabea izan behar du, eta planak sortu eta aplikatzeko prozesu osoan zehar egin behar da.

Hori dela-eta, etengabeko ebaluazioa bideragarria eta eraginkorra izateko, planen betearazpenaren jarraipena egiteko bilerak egiten dira, hainbat bilera tekniko gainera, planen betearazpenean eta programen aplikazioan aurkitzen diren akats edo arazoei buruz eztabaidatzeko.

El II Plan Interinstitucional de Apoyo a las Familias fue aprobado en noviembre de 2006 y su vigencia se prolonga hasta 2010. Tras sendas evaluaciones anuales, a finales de 2009 se realizará la evaluación correspondiente al estado de ejecución de las distintas medidas previstas en el Plan junto con la memoria de ejecución de los diversos programas de ayudas.

Por lo que toca al Plan de Inclusión Social, aprobado a mediados de 2007 y con vigencia para el trienio 2007-2009, corresponde hacer en este ejercicio de 2009 su evaluación anual y final, en la que habrán de incorporarse también los resultados de la evaluación realizada en 2008.

Finalmente en el año 2009 se realizará una nueva evaluación del programa de Ayudas de Emergencia Social, prestando especial atención al funcionamiento del aplicativo disponible en la herramienta de Diagnóstico e Intervención Social para la gestión de las AES, así como a su grado de implantación y a la satisfacción de los usuarios con el mismo.

Esta Viceconsejería considera que la evaluación de programas no puede limitarse a la elaboración de un informe de ejecución y de resultados, sino que la evaluación debe ser continua realizándose a lo largo de todo el proceso de elaboración y aplicación de los planes.

Por eso, para hacer factible y operativa esa evaluación continuada se dispone la realización de una serie de reuniones de seguimiento de ejecución de los planes y una serie de reuniones técnicas en las que se discutirán las disfunciones o problemas que se vayan detectando en la ejecución de los planes y en la aplicación de los programas.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
<p>1. GIZARTE BAZTERKERIAREN AURKAKO BORROKA.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Oinarrizko Errentaren babes-mailari eustea. <ul style="list-style-type: none"> - Hilero arreta eman zaien bizikidetza-unitateak. • 2. Etxebizitzarako Osagarriaren Prestazioa. <ul style="list-style-type: none"> - Eman beharreko diru-laguntzak. • 3. Etxebizitzarako Osagarriaren Prestazioa. <ul style="list-style-type: none"> - Eman beharreko diru-laguntzak. • 4. Gizarte-larrialdietarako laguntzak <ul style="list-style-type: none"> - Eman beharreko diru-laguntzak. • 5. Gizarteratze-hitzarmenak. <ul style="list-style-type: none"> - Izenpetutako hitzarmenak. • 6. AUZOLAN programa. <ul style="list-style-type: none"> - Onuradunak. 	<p>40.500</p> <p>20.782</p> <p>14.780</p> <p>12.000</p> <p>8.000</p> <p>900</p>	<p>1. LUCHA CONTRA LA EXCLUSIÓN SOCIAL.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Mantenimiento del nivel de cobertura de la Renta Básica. <ul style="list-style-type: none"> - Unidades de convivencia atendidas mensualmente. • 2. Prestación de Complemento de Pensiones. <ul style="list-style-type: none"> - Subvenciones a conceder. • 3. Prestación del Complemento de Vivienda. <ul style="list-style-type: none"> - Subvenciones a conceder. • 4. Atención a situaciones de Emergencia Social. <ul style="list-style-type: none"> - Subvenciones a conceder. • 5. Convenios de inserción. <ul style="list-style-type: none"> - Convenios suscritos. • 6. Programa AUZOLAN. <ul style="list-style-type: none"> - Personas beneficiarias.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
<ul style="list-style-type: none"> • 7. Gizarteratze Enpresei laguntzeko Programa. <ul style="list-style-type: none"> - Onuradunak. • 8. Hitzarmenak enplegu-zentro bereziekin. <ul style="list-style-type: none"> - Egin beharreko hitzarmenak. • 9. Guraso bakarreko familientzako lana eta familia bateragarri egiteko zerbitzuak, laneratzeko programetan parte hartu ahal izateko. <ul style="list-style-type: none"> - Onuradunak. • 10. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntzak <ul style="list-style-type: none"> 1. Onuradunak. • 11. Erakunde arteko koordinazioa. <ul style="list-style-type: none"> - Harremanak foru-aldundi, udal eta beste erakunde batzuekin. Lan- eta koordinazio-bilerak. 	<p style="text-align: center;">54</p> <p style="text-align: center;">1</p> <p style="text-align: center;">150</p> <p style="text-align: center;">40</p> <p style="text-align: center;">30</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 7. Programa de apoyo a las Empresas de Inserción. <ul style="list-style-type: none"> - Entidades a subvencionar. • 8. Convenios con Centros Especiales de Empleo. <ul style="list-style-type: none"> - Convenios a realizar. • 9. Servicios de conciliación para familias monoparentales para su participación en programas de inclusión laboral. <ul style="list-style-type: none"> - Personas beneficiadas. • 10. Ayudas a mujeres víctimas de violencia de género. <ul style="list-style-type: none"> - Personas beneficiadas. • 11. Coordinación institucional. <ul style="list-style-type: none"> - Relaciones con Diputaciones Forales, Ayuntamientos y otros organismos. Reuniones de trabajo y coordinación.
<p>2. BAZTERKETA EGOEREI AURREA HARTZEA ETA GIZARTERATZEA.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Gizarteratzeko eta bazterketari aurrea hartzeko programak irabazi asmorik gabeko erakunde publiko eta pribatuekin batera finantzatzea. <ul style="list-style-type: none"> - Emandako laguntzak. • 2. Erakunde arteko koordinazioa; harremanak foru-aldundi, udal eta beste erakundeekin. <ul style="list-style-type: none"> - Lan eta koordinazio-bilerak. 	<p style="text-align: center;">80</p> <p style="text-align: center;">15</p>	<p>2. PREVENCIÓN DE LAS SITUACIONES DE MARGINACIÓN E INSERCIÓN.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Subvención a Programas de inserción y prevención de la marginación con entidades públicas y privadas sin ánimo de lucro. <ul style="list-style-type: none"> - Ayudas concedidas. • 2. Coordinación institucional, Relaciones con Diputaciones Forales, Ayuntamientos y otros organismos. <ul style="list-style-type: none"> - Reuniones de trabajo y coordinación.
<p>3. GIZARTERATZE ARLOKO PROFESIOALEN PRESTAKUNTZA, IKERKETA ETA INFORMAZIOAREN ZABALKUNDEA.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Ikastaroak, biltzarrak eta mintegiak egitea. <ul style="list-style-type: none"> - Prestakuntza eta zabalkunde-egintzak. • 2. Azterlan teknikoak eta informazioa zabaltzea. <ul style="list-style-type: none"> - Hilabetekariak. - Bestelako aldizkariak. - Aldizkakoak ez diren argitalpenak. • 3. Partaidetza-organoak. <ul style="list-style-type: none"> - Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordearen bilerak. 	<p style="text-align: center;">15</p> <p style="text-align: center;">11</p> <p style="text-align: center;">1</p> <p style="text-align: center;">4</p> <p style="text-align: center;">4</p>	<p>3. FORMACIÓN DE PROFESIONALES, INVESTIGACIÓN Y DIFUSIÓN DE LA INFORMACIÓN EN EL ÁREA DE LA INSERCIÓN SOCIAL.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Realización de cursos, congresos y seminarios. <ul style="list-style-type: none"> - Actos de formación y difusión. • 2. Difusión de estudios técnicos e información. <ul style="list-style-type: none"> - Publicaciones mensuales. - Otras publicaciones periódicas. - Publicaciones no periódicas. • 3. Órganos de participación. <ul style="list-style-type: none"> - Reuniones de la Comisión Interinstitucional para la Inserción.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
- Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorren bilerak.	4	- Reuniones de la Comisión Permanente para la Inserción.
- Gizarteratzeko Departamentu arteko Batzordearen bilerak.	2	- Reuniones de la Comisión Interdepartamental para la Inserción.
- Batzorde teknikoak.	8	- Comisiones Técnicas.
4. GIZARTERATZE PLANAREN ETA FAMILIEI LAGUNTZEKO PLANEN EBALUAZIOA.		4. EVALUACIÓN DEL PLAN DE INSERCIÓN SOCIAL Y DEL PLAN DE APOYO A LAS FAMILIAS.
<ul style="list-style-type: none"> • 1. Gizarteratzeko II. Planaren betearazpenaren ebaluazioa. 		<ul style="list-style-type: none"> • 1. Evaluación de la ejecución del II Plan de Inclusión Social.
